

Arrasateko Udala

Partaidetzazko aurrekontuak

2017-2018ko prozesuko datuak

Arrasate, 2018ko martxoak 13

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

**Prozesuaren
ezaugarri nagusiak**

Datuak eta emaitzak

1

Prozesuaren ezaugarri nagusiak

Hauek izan dira 2017-2018ko prozesuaren ezaugarri nagusiak:

- Diru-partida jakin baten (250.000€) gainean eraikitako prozesua izan da.
- Prozesuan parte hartuko duten **subjektuak** norbanakoak izan dira (proposamenak egiteko, edonor, eta bozkatzeko, Arrasaten erroldatutako 16 urtetik aurrerakoak); **komunikaziorako euskarri nagusiak** etxe guztietan banatutako esku-orriak izan dira; eta proposamenak egiteko eta bozkatzeko **bideak**, berriz, presentzialak (stand-ak eta udal eraikinak, proposamenak helarazteko, eta, bozkatzeko, berriz, soilik BAZ) eta digitalak (webgunea, bai proposamenak egiteko eta bai bozkatzeko).
- PROPOSAMEN FASEA: Perspektiba irekia izan du prozesuak (edonolako proposamen onartu du Udalak, gastu zein inbertsio), baina proposamenen exekuzio-epemuga jarri dugu (2018an exekutatzeko modukoak). Ez da planteatu bilerarik herritarren deliberaziorako eta jasotako proposamenen artean ez da konbergentziarik egin; alegia, Udalak ez du proposamenen artean aukeraketarik egin, soilik oso antzerakoak bateratu egin ditu.
- BOZKETA FASEA: 16 urtetik gorako herritar bakoitzak botoa 3 proposameni emateko aukera izan du. Botoak ponderatuak izan dira (lehenak 5 puntu, bigarrenak 2 eta hirugarrenak 1).

Prozesuaren ezaugarri nagusiak

Hauek izan dira 2017-2018ko prozesuaren ezaugarri nagusiak:

- BARNE ANTOLAKUNTZA: Talde Motorra (udal arduradunak + Emun aholkulariak) eta Alderdien Mahaia (alderdiko ordezkari bana, alkatea eta Emun aholkulariak); lidergo partekatua eraman nahi izan da alderdi guztien artean, eta komunikazio-agerpenetan alderdi guztien parte-hartzea sustatu da.
- Hauek izan dira, laburbilduz, prozesuaren faseak:
 - Komunikazioa: prentsaurrekoak, paperezko euskarriak (kartelak, flyerrak...), webgunea.
 - Proposatu: esku-orriak, stand ibiltaria, online, 338 proposamen.
 - Aztertu: udal teknikarien azterlana, proposamenen bideragarritasun teknikoa aztertu eta bideragarriei aurrekontua esleitzeko; prozesuko baldintzak betetzen zituzten 236 proposamen jo dira bideragarritzat, eta bozketara begira antzerakoen bateratze lana egin da, eta bozketara 114 proposamen eraman dira.
 - Erabaki: bilaketa sistema, flyerra, online/BAZ, 651 boto-emaile, aurrera doazen 6 proposamenak.
- PROZESUAREN EMAITZAK: 6 proposamen atera dira aurrera (jada aurreikusitako aurrekontuetan 250.000€ko langa gaindituz) eta Udalak 2018an egikaritu ditu (ikus aurrerago xehetasun gehiago).

- Guztira 651 boto-emaile
 - 328 emakume eta 323 gizon
 - Euskaraz 372 bozka, gazteleraz 279
 - BAZen, 16 lagunek bozkatu dute; online, 635ek
 - Bozkaren bat jaso duten proposamen kopurua: 110/114
- * Bozketako emaitzetan ez dugu ebidentziarik ikusi lobby-lanetarako mobilizazio izugarriarik egon denik pentsatzeko.

Lortutako puntu kopurua	Herritarren proposamenak	Proposamenaren kostua
643	Txikitxoko bat sortzea	15.000€
552	Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea	6.000€
468	Erguin auzorako igogailua, proiektua egitea	30.000€
281	Iturripe berritzea	65.000€
169	Arrasate barruan bidegorri sarea, proiektua idaztea	40.000€
139	Aterpe bat jolasteko	150.000€
		306.000€

DATUETAN OINARRITUTAKO IRAKURKETAK:

- Jasotako proposamen kopurua (338) handia izan da inguruko herri eta hirietako datuekin alderatuta.
- Jasotako bozka kopurua (651), aldiz, Alderdien Mahaiak espero baino txikiagoa izan da, jasotako proposamenen kopuru handiak sortutako espektatibak aintzat hartuta.
- Bozkatuena izan den proposamena boto-emaile guztien %23k bozkatu du.
- Top6an sartu den azken proposamena boto-emaile guztien %8k bozkatu du.
- Top6tik beherako proposamen bakar batek ere ez ditu jaso Top6koek baino boto gehiago.
- Top6koek puntu guztien %43 jaso dute, ia gainerako 104 proposamenek batera bezain beste.
- Top6ko proiektuak, jardun-eremuka: Umeentzako ekipamenduak: 2 (Txikitxokoa, parke estalia), Mugikortasuna: 2 (Erguineko igogailua, bidegorriak), Kirolak: 2 (Iturripe berritu, bizikletak garbitzeko gunea)
- Top6ko proiektu guztiak “eraikuntza” lanekin lotutakoak dira.
- 114 proposamen horietatik batzuk antzerakoak ziren arren (adib.: Haurren parkeak, bidegorriak), eta boto-dispertsioa eragin duten arren, Top6an sartu da “ordezkari” bana.

DATUAK ETA EMAITZAK

Top10 ponderazioarekin (5-2-1)	Top10 ponderaziorik gabe (3-2-1)	Top10 jasotako boto kopuruaren arabera
Txikixoko bat sortzea	643 Txikixoko bat sortzea	403 Txikixoko bat sortzea 150
Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea	552 Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea	356 Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea 135
Erguin auzorako igogailua, proiektua egitea	468 Erguin auzorako igogailua, proiektua egitea	308 Erguin auzorako igogailua, proiektua egitea 123
Iturripe berritzea	281 Iturripe berritzea	191 Arrasate barruan bidegorri sarea, proiektua idaztea 80
Arrasate barruan bidegorri sarea, proiektua idaztea	169 Arrasate barruan bidegorri sarea, proiektua idaztea	141 Iturripe berritzea 78
Aterpe bat jolasteko	139 Aterpe bat jolasteko	101 Aterpe bat jolasteko 51
Gasolineraren egokitzapena	93 Aisialdi guneak eta estalitako haur parkeak	80 Aisialdi guneak eta estalitako haur parkeak 46
Aisialdi guneak eta estalitako haur parkeak	90 Haur parkeak hobetzea	74 Haur parkeak hobetzea 42
Haur parkeak hobetzea	86 Gasolineraren egokitzapena	73 Gasolineraren egokitzapena 41
Arrasateko auzoen parkeak	85 Erguinen aparkalekuak eratu	69 Bizikletak aparkatzeko lekua 37

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

Aurrera doazen
proiektuak

2

Herritarrek aukeratu dituzten proiektuak



ARRASATEKO UDALAREN PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK
HERRITARREN PROPOSAMENEN
BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO FITXA



HERRITARRAREN PROPOSAMENAREN IZENA:	TXIKITXOKO BAT SORTZEA / PUESTA EN MARCHA DE UN TXIKI TXOKO
PROPOSAMENAREN INGURUKO AZALPENAK:	HERRITARREK ESKATUTAKOA: - La franja de edad de 0-6 años en días lluviosos no está cubierta. Habilitaría un espacio más grande que el txoko 0-3 de Kulturate para que así los niños jugaran ahí. - Umeentzat espazio itxia eguraldi txarra (hotza eta euria) dagoenean jolasteko; jokuak, puzgarriak, mahai jolasak e.a. AZALPENAK - Inguruko herrietan (Oñati eta Bergara) haur txiki eta gurasoentzako jolasgune itxiak dituzte eta Arrasaten ere era honetako guneak sortzeko eskaerak jaso izan ditu Udalak. Izan ere, aurreko legegintzaldian guraso talde batekin jorratu zen txikitxoko bat martxan jartzeko aukera, nahiz eta azkenean ez zen gauzatu. - Gurasoak hurrekin jolastearen garrantzi eta onuraz jabetuta, herrian jolasgune itxiak sortzea proposa izan daiteke, are gehiago bertako eguraldia kontuan hartuta. - Jolasteko guneak izateaz gain, txikitxokoak izan daitezke espazio egokiak edoskitzeko, gurasoen arteko harreman eta elkartrukea sustatzeko, tailerrak antolatzeko, ...
2018KO AURREKONTUEN PROZESURAKO BIDERAGARRIA DA?	Bai
EZ BIDERAGARRITZAT JOTZEKO ARRAZOIAK:	- -
BIDERAGARRI BADA, PROPOSAMENAREKIN EGINGO DEN PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:	Guraso talde bat osatu, beharrak eta proposamen ezberdinak jorratzeko, txikitxokoaren eredua era parte hartzailean adosteko. Lokala aukeratu Egokitu Hornitu
PROIEKTUAREN AURREKONTUA:	Lokalaren arabera, lehenengo zehaztu beharko litzateke non kokatu. Planteatuko balitz txikitxokoa jartzeko egokitzapen beharrik ez duen lokal batean, hornitzeko nahikoa litzateke 15.000€
ZER EGINGO DA PROPOSAMENAREKIN?'	Bozketara eraman

Herritarrek aukeratu dituzten proiektuak



ARRASATEKO UDALAREN PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK HERRITARREN PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO FITXA



HERRITARRAREN PROPOSAMENAREN IZENA:	Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea/ Zona de lavado y arreglo para bicicletas	
PROPOSAMENAREN INGURUKO AZALPENAK:	Bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea herri gunean jartzeko eskaera.	
2018KO AURREKONTUEN PROZESURAKO BIDERAGARRI DA?	BAI	
EZ BIDERAGARRITZAT JOTZEKO ARRAZOIAK:	- - - -	
BIDERAGARRI BADA, PROPOSAMENAREKIN EGINGO DEN PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:	- Erdi-gunean egitea, adibidez: - Udaltzaingoaren alboko parkea edo antzerako espazio batean egitea (Portugaletoko estila). - Udaltzaingoa bertan egoteak, errespetuzko erabilera egitea bultzatuko du bizikleta zaleak ez direnen aldetik.	
PROIEKTUAREN AURREKONTUA:	6.000 €	
ZER EGINGO DA PROPOSAMENAREKIN?'	Bozketara eramango da	

Herritarrek aukeratu dituzten proiektuak



ARRASATEKO UDALAREN PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK HERRITARREN PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO FITXA



HERRITARRAREN PROPOSAMENAREN IZENA:	ERGUIN AUZORAKO IGOGAILUA – PROIEKTUA EGITEA	
PROPOSAMENAREN INGURUKO <u>AZALPENAK</u>:	(herritarrek emandako informazio gakoa) Erguin auzora joateko aldapa luzeak igo behar dira. Beste auzo batzuetan egin den bezala, igogailu bat egitea (edo arrapalak, edo beste sistemaren bat) gomendagarria izango zen.	
2018KO AURREKONTUEN PROZESURAKO BIDERAGARRIA DA?	BAI	
EZ BIDERAGARRITZAT JOTZEKO <u>ARRAZOIAK</u>:	- Nahiz 250.000 € baino kostu handiagoa duen igogailua egiteak, lehenengo pausoa proiektua egitea denez, proiektuaren erredakzioa bozketara eramatea proposatzen da.	
BIDERAGARRI BADA, PROPOSAMENAREKIN EGINGO DEN PROIEKTUAREN <u>EZAUGARRI NAGUSIAK</u>:	(herritarrek proposatutakoak kontuan hartuta, teknikariak proposatzen duen proiektu orokorraren ezaugarri gakoak)	
PROIEKTUAREN <u>AURREKONTUA</u>:	30.000 EUR	
ZER EGINGO DA PROPOSAMENAREKIN?	Ideia gisa etorkizunerako kontuan hartuko da	

Herritarrek aukeratu dituzten proiektuak



ARRASATEKO UDALAREN PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK HERRITARREN PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO FITXA



HERRITARRAREN PROPOSAMENAREN IZENA:	Iturripe berriztea/ Reformar Iturripe	
PROPOSAMENAREN INGURUKO AZALPENAK:	(herritarrek emandako informazio gakoa) Renovar el suelo de la cancha de Iturripeko, los vestuarios, las instalaciones y los alrededores.	
2018KO AURREKONTUEN PROZESURAKO BIDERAGARRIA DA?	SI (parcialmente)	
EZ BIDERAGARRITZAT JOTZEKO ARRAZOIAK:	- - -	
BIDERAGARRI BADA, PROPOSAMENAREKIN EGINGO DEN PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:	- La renovación del suelo de la cancha es un tema prioritario y se puede ejecutar en el próximo ejercicio. - -	
PROIEKTUAREN AURREKONTUA:	65.000 € (sólo suelo de la cancha interior)	
ZER EGINGO DA PROPOSAMENAREKIN?'	Bozketara eramango da	

Herritarrek aukeratu dituzten proiektuak



ARRASATEKO UDALAREN PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK HERRITARREN PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO FITXA



HERRITARRAREN PROPOSAMENAREN IZENA:	ARRASATE BARRUAN BIDEGORRI SAREA – PROIEKTUA IDAZTEA	
PROPOSAMENAREN INGURUKO AZALPENAK:	(herritarrek emandako informazio gakoa) Eginda dauden bidegorri zatiak herri barruan lotu, eta horretarako errepidean marraz margotu, seinalitika jarri eta horrela segurtasunez bizikletan ibili ahal izateko	
2018KO AURREKONTUEN PROZESURAKO BIDERAGARRIA DA?	BAI	
EZ BIDERAGARRITZAT JOTZEKO ARRAZOIAK:		
BIDERAGARRI BADA, PROPOSAMENAREKIN EGINGO DEN PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:	(herritarrek proposatutakoak kontuan hartuta, teknikariak proposatzen duen proiektu orokorraren ezaugarri gakoak) - Mugikortasun planak aurreikusten du herriko bidegorri sarearen lotura. Hori gauzatzeko, epeka eta tramoka bidegorria sarea handitzen doa. Adibidez, Uribarrik zatia momentu honetan. - Egin beharreko pausoak hurrengoak dira: Mugikortasun Plana onartu, bertan adierazten diren ardatz nagusietatik baten bat aukeratu, seinalitika proiektua idatzi, eta ondoren lanak gauzatu - Bozketara eramango da zati bateko proiektua idaztea.	
PROIEKTUAREN AURREKONTUA:	40.000 €	
ZER EGINGO DA PROPOSAMENAREKIN?	Bozketara eramango da	

Herritarrek aukeratu dituzten proiektuak



ARRASATEKO UDALAREN PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK HERRITARREN PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO FITXA



HERRITARRAREN PROPOSAMENAREN IZENA:	OZMA 6 ATERPE BAT JOLASTEKO- UNA ZONA CUBIERTA PARA JUGAR	
PROPOSAMENAREN INGURUKO AZALPENAK:	(herritarrek emandako informazio gakoa) Umeekin jolasteko aterpe bat.	
2018KO AURREKONTUEN PROZESURAKO BIDERAGARRIA DA?	BAI	
EZ BIDERAGARRITZAT JOTZEKO ARRAZOIAK:		
BIDERAGARRI BADA, PROPOSAMENAREKIN EGINGO DEN PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:	(herritarrek proposatutakoak kontuan hartuta, teknikariak proposatzen duen proiektu orokorraren ezaugarri gakoak) Dagoeneko aurkezturiko ekintzan Arrasateko Udal lanean dabil: 2017. urtean Arrasateko Udalak Gorostiza parkeko estalpea egin du eta 2018an gauzatu da Makatzena frontoi inguruko berurbanizatzea, eta testu inguru horretan bertako parkea berritu eta estaliko da, baita ere Udal lanean dabil ltxaropenan parkea berritzeko eta, erabakitzeaz dago estalpea ipini edo ez. Hala ere, diru partida indartu daiteke zentzu honetan.	
PROIEKTUAREN AURREKONTUA:	150.000 EUR	
ZER EGINGO DA PROPOSAMENAREKIN?	Bozketara eramango da.	



Eskerrik asko

www.emun.eus